



# KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria  
2025eko martxoa - 258 zkia.



Iera Naberan Uranga

**“Harritu eta gogaitzen direnek  
ohitzen joan beharko dute”**

INAUTERIAK • IZARRAK KEINUKA • ZAPATARIAK, LARRUA ETA PORTUKO ZURRATEGIA  
MIREN ITZIAR LETE • BERTSO ESKOLAREN HISTORIA

#### GOI-MAILA:

Bioteknologia - Elikagaien  
industriako prozesuak eta kalitatea  
Administrazioa eta finantzak  
Web aplikazioen garapena  
Automatizazioa eta robotika  
industriala  
Mekatronika industrial  
Efizientzia energetikoa eta  
eguzki energia termikoa  
Fabrikazio mekanikoko  
produzioaren programazioa

#### ERDI-MAILA:

Mantentze-lan elektromekanikoa  
Beroa sortzeko instalazioak  
Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria  
Elikagaiak elaboratzeko teknikaria  
Soldadura eta galdaragintza

#### ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

Zibersegurtasuna eragiketa-  
teknologien inguruneetan

**Aforo mugatuak. EMAN IZENAI**

94 616 90 02 info@leartik.eus

# LHEZIKETA BATXILERGOA

**Ate irekiak**

**MARTXOAK 29**

LANBIDE HEZIKETA **10:30**

BATXILERGOA **11:00**

leartik.eus



**lea artibai**  
ikastetxea  
MARKINA-XEMEIN



Herria dut maite  
nere etxe hau alderik  
alde bezelaxe  
aberats ta pobre  
jakintsu ta arlote  
esker eta eskubi  
uri eta baserri  
mendi eta itsasalde  
Herria dut maite  
nere herri delakotz  
besterikan gabe.

**Bitoriano Gandiaga**



Aberri Eguna, 2025eko apirilaren 20a





# Telefonoak

## Osasuna

### COVID-19 KORONABIRUSA

#### OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

|                           |              |
|---------------------------|--------------|
| Larrialdiak.....          | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa.....         | 943 60 43 00 |
| DYA zentrala.....         | 943 46 46 22 |
| Mendaroko ospitala .....  | 943 03 28 00 |
| Alzheimer elkarteak ..... | 943 29 71 18 |

#### Botikak

|                                 |                             |
|---------------------------------|-----------------------------|
| Lasuen-Elezgarai .....          | 943 19 50 26 / 626 61 13 92 |
| Lon Apraiz .....                | 943 60 32 50 / 630 05 50 97 |
| Amaia Zalduegi .....            | 669 26 22 01                |
| Hiart Burgoa .....              | 667 33 88 90                |
| Arantzazu Izpizua (Eibar) ..... | 943 20 19 12                |

## Udala, zerbitzuak...

|                                    |                             |
|------------------------------------|-----------------------------|
| Udaletxea .....                    | 943 60 32 44                |
| Udaltzaingoa .....                 | 943 60 70 48 / 679 16 25 00 |
| Gizarte Ongizatea .....            | 943 19 50 81                |
| Anai Arte bulegoa .....            | 943 60 42 47                |
| Anai Arte taberna .....            | 943 60 34 10                |
| Mikel Deuna Zaharren Egoitza ..... | 943 60 38 71                |
| Eguneko Zentroa .....              | 943 60 38 71                |
| Turismo Bulegoa .....              | 943 60 33 78                |
| Bake epaitegia .....               | 943 60 70 49                |
| Kiroldegia .....                   | 943 60 31 75                |
| Liburutegia .....                  | 943 60 41 82                |
| Miruaiz pilotalekua .....          | 943 60 41 91                |
| Ur Kontsortzioa .....              | 943 00 22 22                |
| Zakarrak eta traste zaharrak ..... | 943 70 07 99                |
| Posta zerbitzua .....              | 943 60 30 44                |

## Irakaskuntza

|                                      |              |
|--------------------------------------|--------------|
| Goizeko Izarra Ikastola .....        | 943 89 91 52 |
| San Miguel Ikastetxea .....          | 943 60 31 95 |
| Mutrikuko BHI Institutua .....       | 943 89 92 24 |
| Kardala Akuakultura Institutua ..... | 943 60 71 37 |
| Udal Euskaltegia .....               | 943 60 30 94 |
| Udal Musika Eskola .....             | 943 60 37 80 |
| Haurreskola publikoa .....           | 943 60 41 19 |

## Garraio zerbitzuak

|                         |              |
|-------------------------|--------------|
| ANSOLA taxia .....      | 638 67 23 83 |
| Lurraldebus .....       | 900 30 03 40 |
| Pesa Autobusak .....    | 900 12 14 00 |
| BizkaiBus .....         | 902 22 22 65 |
| EuskoTren .....         | 944 333 333  |
| Loiuko Aireportua ..... | 905 50 50 05 |

## Bestelakoak

|                |              |
|----------------|--------------|
| Parrokia ..... | 943 60 39 87 |
|----------------|--------------|

# Iritzixa

## SOKA

### Garai batean

etxeko atea kale gainean,  
eta ate-markoan nailonezko soka;  
sareak josteko nailonezko soka gorrixka  
iltze oker bati lotua.  
Sokatik tira... eta "klik", atea zabalik.

### Garai batean

tranpa kalean katuak,  
adokin tartetean belarra,  
eta pareta zuloetan mamakuloak.  
Eta iltze oker bati lotuta, nailonezko soka gorrixka.  
Sokatik tira... eta "klik", atea zabalik.

### Orain kaleak, etxeak, dena, merkatu.

Katuak mamakulo,  
Ateak paretera iltzatuak  
eta etxebizitzak pisu turistiko.  
Kontsumorako prest,  
Airbnb "klik", eta ateak zabalik.



### Argitaratzailea

**Karenka Komunikazio Elkartea**  
Barrenkale 12, behea  
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta [aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus)

Webgunea: [www.kalaputxi.eus](http://www.kalaputxi.eus)

Bloga [www.kalaputxi.blogspot.com](http://www.kalaputxi.blogspot.com)

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

### Kolaboratzaileak

**Josu Larrañaga**  
**Inhar Mutiozabal**

Tirada 2.200 ale

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak  
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza  
jasotzen du:



**Mutrikuko Udala**



| astelehenetik ostiralera                                   |                     |        |         |       |       |                    |       |                     |
|------------------------------------------------------------|---------------------|--------|---------|-------|-------|--------------------|-------|---------------------|
| DB03                                                       | LEKEITIO - DONOSTIA |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Lekeitio                                                   | 6:15                | 9:50   | 12:50   | 17:50 | 20:00 |                    |       |                     |
| Ondarroa                                                   | 6:40                | 10:15  | 13:15   | 18:15 | 20:25 |                    |       |                     |
| Mutriku                                                    | 6:45                | 10:20  | 13:20   | 18:20 | 20:30 |                    |       |                     |
| Donostia                                                   | * 7:55              | 11:30  | 14:30   | 19:30 | ---   | * Unibertsitatetik |       |                     |
| DB03                                                       | DONOSTIA - LEKEITIO |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Donostia                                                   | 8:00                | 11:00  | * 14:30 | 18:00 | 20:30 | * Unibertsitatetik |       |                     |
| Mutriku                                                    | 8:50                | 11:50  | 15:25   | 18:50 | 21:20 |                    |       |                     |
| Lekeitio                                                   | 9:35                | 12:35  | 16:10   | 19:35 | 22:05 |                    |       |                     |
| DB04                                                       | ONDARROA - MALLABIA |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Mutriku                                                    | 7:15                | orduro | 20:15   | 21:25 | 22:15 | 22:45              |       |                     |
| Mendaro                                                    | 7:50                | orduro | 20:50   | 22:05 | 22:25 | 22:55              |       |                     |
| Eibar                                                      | 8:15                | orduro | 21:15   | 22:30 | 22:45 | 23:15              |       |                     |
| Mallabia                                                   | 8:30                | orduro | 21:30   | 22:45 | ---   | ---                |       |                     |
| OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.                   |                     |        |         |       |       |                    |       |                     |
| DB04                                                       | MALLABIA - ONDARROA |        |         |       |       |                    |       | lanegun ostiraletan |
| Mallabia                                                   | 6:00                | 6:45   | orduro  | 20:45 | 21:25 | * 22:05            |       |                     |
| Eibar                                                      | 6:05                | 7:05   | orduro  | 21:05 | 22:10 | 22:15              |       |                     |
| Mendaro                                                    | 6:35                | 7:35   | orduro  | 21:35 | 22:20 | 22:30              |       |                     |
| Mutriku                                                    | 6:55                | 7:55   | orduro  | 21:55 | 22:30 | 22:40              |       |                     |
| OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.) |                     |        |         |       |       |                    |       |                     |
| DB05                                                       | MUTRIKU - ZUMAIA    |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Mutriku                                                    | 6:25                | 9:25   | 11:25   | 13:25 | 16:25 | 18:25              |       |                     |
| Deba                                                       | 6:40                | 9:45   | 11:40   | 13:40 | 16:40 | 18:40              |       |                     |
| Zumaia                                                     | 7:10                | 10:10  | 12:10   | 14:10 | 17:10 | 19:10              |       |                     |
| DB05                                                       | ZUMAIA - MUTRIKU    |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Zumaia                                                     | 8:10                | 10:10  | 12:10   | 15:10 | 17:10 |                    |       |                     |
| Deba <sup>35 min. zain</sup>                               | 8:40                | 10:40  | 12:40   | 15:40 | 17:40 |                    |       |                     |
| Mutriku                                                    | 9:25                | 11:25  | 13:25   | 16:25 | 18:25 |                    |       |                     |
| DB06                                                       | ONDARROA - SORALUZE |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Mutriku                                                    | 8:45                | 10:45  | 12:45   | 14:45 | 17:45 | 19:45              | 21:45 |                     |
| Mendaro                                                    | 9:15                | 11:15  | 13:15   | 15:15 | 18:15 | 20:15              | 22:15 |                     |
| Soraluze                                                   | 9:40                | 11:40  | 13:40   | 15:40 | 18:40 | 20:40              | 22:40 |                     |
| DB06                                                       | SORALUZE - ONDARROA |        |         |       |       |                    |       |                     |
| Soraluze                                                   | 7:40                | 9:40   | 11:40   | 13:40 | 16:40 | 18:40              | 20:40 |                     |
| Elgoibar                                                   | 7:45                | 9:45   | 11:45   | 13:45 | 16:45 | 18:45              | 20:45 |                     |
| Mendaro                                                    | 8:00                | 10:00  | 12:00   | 14:00 | 17:00 | 19:00              | 21:00 |                     |
| Mutriku                                                    | 8:20                | 10:20  | 12:20   | 14:20 | 17:20 | 19:20              | 21:20 |                     |

| larunbat, igande eta jai-egunak                                                  |                     |       |        |       |       |       |       |
|----------------------------------------------------------------------------------|---------------------|-------|--------|-------|-------|-------|-------|
| DB03                                                                             | LEKEITIO - DONOSTIA |       |        |       |       |       |       |
| Lekeitio                                                                         | 8:00                | 12:30 | 17:00  | 19:00 |       |       |       |
| Ondarroa                                                                         | 8:25                | 12:55 | 17:25  | 19:25 |       |       |       |
| Mutriku                                                                          | 8:30                | 13:00 | 17:30  | 19:30 |       |       |       |
| Donostia                                                                         | 9:40                | 14:10 | 18:40  | 20:10 |       |       |       |
| DB03                                                                             | DONOSTIA - LEKEITIO |       |        |       |       |       |       |
| Donostia                                                                         | 10:30               | 14:30 | 17:00  | 20:30 | 21:00 |       |       |
| Mutriku                                                                          | 11:20               | 15:20 | 17:50  | 21:20 | 21:50 |       |       |
| Lekeitio                                                                         | 12:05               | 16:05 | 18:35  | 22:05 | 22:35 |       |       |
| DB04                                                                             | ONDARROA - MALLABIA |       |        |       |       |       |       |
| Mutriku                                                                          | 7:15                | 8:15  | orduro | 20:15 | 21:25 | 22:15 |       |
| Mendaro                                                                          | 7:45                | 8:45  | orduro | 20:45 | 22:05 | 22:25 |       |
| Eibar                                                                            | 8:10                | 9:10  | orduro | 21:10 | 22:30 | 22:45 |       |
| Mallabia                                                                         | 8:25                | 9:25  | orduro | 21:25 | 22:45 | ---   |       |
| LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.                   |                     |       |        |       |       |       |       |
| DB04                                                                             | MALLABIA - ONDARROA |       |        |       |       |       |       |
| Mallabia                                                                         | 6:50                | 7:45  | orduro | 19:45 | 20:45 | 21:45 | 22:00 |
| Eibar                                                                            | 7:00                | 8:00  | orduro | 20:00 | 21:00 | 22:00 | 22:15 |
| Mendaro                                                                          | 7:35                | 8:35  | orduro | 20:35 | 21:35 | 22:35 | 22:40 |
| Mutriku                                                                          | 7:55                | 8:55  | orduro | 20:55 | 21:55 | 22:55 | 23:00 |
| LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.) |                     |       |        |       |       |       |       |
| DB05                                                                             | MUTRIKU - ZUMAIA    |       |        |       |       |       |       |
| Mutriku                                                                          | 8:25                | 10:25 | 12:25  | 14:25 | 16:25 | 18:25 | 20:25 |
| Deba                                                                             | 8:40                | 10:40 | 12:40  | 14:40 | 16:40 | 18:40 | 20:40 |
| Zumaia                                                                           | 9:10                | 11:10 | 13:10  | 15:10 | 17:10 | 19:10 | 21:10 |
| DB05                                                                             | ZUMAIA - MUTRIKU    |       |        |       |       |       |       |
| Zumaia                                                                           | 9:10                | 11:10 | 13:10  | 15:10 | 17:10 | 19:10 | 22:10 |
| Deba                                                                             | 9:40                | 11:40 | 13:40  | 15:40 | 17:40 | 19:40 | 22:40 |
| Mutriku                                                                          | 10:25               | 12:25 | 14:25  | 16:25 | 18:25 | 20:25 | 23:25 |
| DB06                                                                             | ONDARROA - SORALUZE |       |        |       |       |       |       |
| Mutriku                                                                          | 9:45                | 11:45 | 13:45  | 17:45 | 19:45 | 21:45 |       |
| Mendaro                                                                          | 10:20               | 12:20 | 14:20  | 18:20 | 20:20 | 22:20 |       |
| Soraluze                                                                         | 10:40               | 12:40 | 14:40  | 18:40 | 20:40 | 22:40 |       |
| DB06                                                                             | SORALUZE - ONDARROA |       |        |       |       |       |       |
| Soraluze                                                                         | 8:40                | 10:40 | 12:40  | 16:40 | 18:40 | 20:40 |       |
| Elgoibar                                                                         | 8:45                | 10:45 | 12:45  | 16:45 | 18:45 | 20:45 |       |
| Mendaro                                                                          | 9:00                | 11:00 | 13:00  | 17:00 | 19:00 | 21:00 |       |
| Mutriku                                                                          | 9:20                | 11:20 | 13:20  | 17:20 | 19:20 | 21:20 |       |

|           | Lehena<br>A-O | Lehena<br>L-I | Azkena<br>egunero |             | Lehena<br>A-O | Lehena<br>L-I | Azkena<br>egunero |
|-----------|---------------|---------------|-------------------|-------------|---------------|---------------|-------------------|
| BILBOTIK  |               | 7:00          | 20:00             | DonostiaTIK | 5:50          | 7:50          | 20:50             |
| Eibar     | 6:14          | 7:14          | 21:14             | Errekalde   | 5:59          | 7:59          | 20:59             |
| Elgoibar  | 6:24          | 7:24          | 21:24             | Orio        | 6:14          | 8:14          | 21:14             |
| Mendaro   | 6:33          | 7:33          | 21:33             | Zarautz     | 6:20          | 8:20          | 21:20             |
| DEBA      | 6:44          | 7:44          | 21:44             | Zumaia      | 6:29          | 8:29          | 21:29             |
| Zumaia    | 7:00          | 8:00          | 22:00             | DEBA        | 6:43          | 8:43          | 21:43             |
| Zarautz   | 7:08          | 8:08          | 22:08             | Mendaro     | 6:52          | 8:52          | 21:52             |
| Orio      | 7:15          | 8:15          | 22:15             | Elgoibar    | 7:01          | 9:01          | 22:01             |
| Errekalde | 7:29          | 8:29          | 22:29             | Eibar       | 7:11          | 9:11          | 22:11             |
| Donostia  | 7:38          | 8:38          | 22:38             | Bilbo       | 8:20          | 10:20         | 23:20             |

| ONDARROA - BILBO                         |        |        | BILBO - ONDARROA                  |        |        |
|------------------------------------------|--------|--------|-----------------------------------|--------|--------|
| astelehenetik ostiralera                 |        |        | astelehenetik ostiralera          |        |        |
|                                          | lehena | azkena |                                   | lehena | azkena |
| A3916 Ermuatik                           | 5:40   | 19:40  | A3916 Ermuatik                    | 7:10   | 22:10  |
| Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25      |        |        | Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10 |        |        |
| A3915 Durangotik                         | 6:10   | 20:10  | A3915 Durangotik                  | 7:40   | 21:40  |
| Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30 |        |        |                                   |        |        |
| jai egunak                               |        |        | jai egunak                        |        |        |
| A3916 Ermuatik                           | 6:40   | 20:40  | A3916 Ermuatik                    | 8:10   | 22:10  |
| A3915 Durangotik                         | 7:10   | 20:10  | A3915 Durangotik                  | 8:40   | 21:40  |

## AURORA MANTEROLA ETA FAMILIA OSOAREN IZENEAN

Eskerrak eman nahi dizkizuegu herritar zareten guztioi.

Momentu gogor honetan gure ondoan egon zaretelako, zuen besarkada, muxu eta doluminak guri transmititzen.

Heriotza beti da gogorra, tristea eta bizitzako fase naturala ere bai. Baina jendeak babestuta sentitzea oso ederra eta goxoa da.

“Herri txiki...infernua handi!!”...esaten dute. Niretzat, txikitatik, “Herri txiki... zorion handi” izan da beti.

Oraingoan ere momentu onak ez izan arren, herritarrek hor egon zarete, gure ondoan, gure doluan laguntzen.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuegu denoi zuen babesagatik.

ESKERRIKASKO MUTRIKUAR GUZTIOI!

**Goizane Barrenetxea Manterola**  
(Familiaren izenean)

## ESKOLA PUBLIKOKO SUKALDEKO KOLEKTIBOAK LAN-PREKARIETATEA ETA ELKARRIZKETARIK EZA SALATU DITU

LAB, ELA eta CCOO sindikatuen deialdiari jarraituz, dagoeneko bi hilabete daramatzagu mobilizazioetan, lan-hobekuntzak eskatzeko eta erakunde eskudunekin benetako elkarrizketa hasteko. Gure borroka eta aldarrikapenak ikusezin bihurtzen dituen jarraipen mediatiko ezaren aurren, sukaldeko kolektiboak salatu nahi du sektoreak pairatzen duen prekariedade-egoera larria, hitzarmena 2009az geroztik eguneratu ez delako.

Gainera, egoerak okerrera egiteko, Eusko Jaurlaritzak ez ditu ordezkatzeko sortzen diren bajak, ez dagoela langile librerik argudiatuz, zerrendak ireki ere egin ez dituenean, langile berriak sartu ahal izateko. Horren ordeztan, joan den astetik lanpostu publikoetako ordezkapenak Auzolan enpresako langileekin betetzea erabaki dute.

Maniobra hori salatu nahi dugu, zerbitzuaren kalitatea arriskuan jartzen duen eta gure lan-baldintzak are gehiago prekarizatzen dituen ezkutuko pribatizazio-saiakera bezala. Agintarien aldetik konpromiso irmoa eskatzen dugu zerbitzu publiko duina eta kalitatezkoa bermatzeko, langileentzat lan-baldintza bidezkoak izango dituen.

Pribatizaziorik ez! Kalitatezko zerbitzu publiko baten alde!

**Eskola Publikoko Sukaldaritza Kolektiboa**

## ESKERRIK ASKO

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartea, Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, «Itxaropen besokoak» kanpaina antolatu zuen otsailaren 1ean eta 2an jokaturako partiduetan eskualdeko kirol talde eta pertsona guztiei besoko berde bat itxaropenaren seinale besoan jarrita. Ekimenak gaixotasun horren biziraupena 2030ean %70era iristeko itxaropena sinbolizatzea zuen helburu.

Elkartasuna adierazteagatik, gaixotasuna ikusarazten laguntzeagatik eta minbizia duten pertsonen babesa adierazteagatik, eskerrik asko talde eta taldekide guztiei: Mutriku Arraun Taldea, Danok Bat pelota elkartea, Oihana Kortazar lasterkaria, Sorginerreka Eskalada Taldea, Txaturanga Xake Taldea, Ondarbeltz Amaiak Bat-Mutriku, Mutriku FT eta Atxukale Txirrindulari taldea.

**Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartea**

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz [aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus) helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.



## MIKEL ARRIETA SAENZ



Laguna jatorra, alaia, laguntzailea, maitakorra.  
Bizitzari parre egiten zenion, orain zauden tokitik  
bultzada eman neri.

Maite zaitxut, Mikel, muxu eta patxo handi bat,  
Bihotz-bihotzez eskerrak nere onduan egon zareten guztioi.

Lurdes



## Aurora Manterola Burgaña

### Montserratenekua

Mollako zaindaria  
Emakume fin eta langile nekaezina  
Asko disfrutatu ditugu zure atun potxo eta antxoak fileteak  
Bihotza maitasunez beteta utzi diguzu betirako

Asko maite izan zaitugu denok



# inda uteriak





# Gazte mutrikuarrak GOGOAN

2003an, Mutrikuk Koldo Andonegi Elezgarai «Mutxur» galdu zuen zorigaiztoko istripu batean. Omenaldi gisa, Axular Arizmendi lagunak Mikel Laboa artista esanguratsua laguntzarekin abesti bat konposatu zuen, eta haren ahotsa zein espiritua bat etorri ziren helburu horrekin Koldorentzako abestia osatuz.

Urteetan zehar, obra hau bertsio orkestratuago eta sakonago batekin berrinterpretatu nahi izan da. Eta oraingoan, Koldo «Mutxur» izan zenari ohore egiteaz gain, gure artetik joan diren gazte mutrikuar guztientzako besarkada izatea nahi da. Abesti hau bidaia hunkigarri bat da utzi gaituztenekiko oroimena eta maitasuna elkartzen dituen, haien jatorrizko arima inoiz ahaztu gabe.

Martxoaren 16an egindako ekitaldian eskutik heldu eta elkarrekin hasi zen bidaia hau, gazte guztiak gogoratuz, senide, lagun eta herkide guztion bihotzetan beti leku berezia izango dutenak gogoan hartuta.

Galdu ditugun gazteengan zentratutako omenaldia mutrikuar guztiontzat izan da. Omenaldia besarkada kolektibo bat izatea nahi izan da, agertokia gaingitu eta gure herri maitearen bihotz guztietara iritsiko dena. Gaur hemen ez badaude ere, jakin dezatela melodia hau beraientzat dela, gure komunitate osoa lotzen duen lokarri bat bezala.

Omenaldia, bihotz-bihotzez sortua izan da, haiekiko lotura indartzea eta gu guztion indarra ematea helburu harturik, herritarrek herritarrei egindako eskaintza, gure gazteak gogoan hartzen jarraitzen dugun bitartean, gure artean izango ditugulako.

Ahotsa: Mikel Laboa    Musika: Axular Arizmendi



Koldo Andonegi Elezgarai «Mutxur» lagunaren heriotzean, Axularrek abestia eskaini zion, eta Mikel Laboaren kolaborazioa izan zuen.

Hogeita bat urte beranduago, lagunari egindako eskaintza haren bertsio berritua herrian gazte sasoiari joan ziren guztiei zabaltzeko die. Guztiei omena egin eta oroigarri-bideoa eman zitzaizkien martxoaren 16an. Orain, QR kode honen bidez herri osoari eskaintzen zaio abestia, mesedez, sare sozialetan ez zabaltzeko eskatuta.



[www.kalaputxi.eus/izarrak](http://www.kalaputxi.eus/izarrak)



## PAIPORTAKO MUSIKA ESKOLAREN ALDEKO ESKEA

Valentzia aldean tanta hotz batek euri jasa handiak eragin zituen, eta horiek heriotzak eta kalte material ugari sortu zituen. Elkartasuna nagusi izan zen jarraiko egunetan, eta valentziarrei galdu zituzten gauzak eskura jartzeko eta diru-ekarpenak egiteko kanpaina ugari jarri ziren martxan. Mutrikun ere bai. Maila pertsonalean bakoitzak egindakoez gain, herri mailako deialdiari erantzunda hainbat material jaso zen Gipuzkoako beste herri batzuetan jasotakoarekin batera bidaltzeko.

Musika eskolan ere Paiporta herriko musika eskolari laguntzea erabaki zuten, eta harako diru-bilketa egin zuen Gabonetan egindako Musika eskolako ikasleen Gabon kontzertuan eta Gabon egunean Banda Txikiak egindako kalejiran. Guztira 732 euro jaso zituzten, eta kopuru hori Paiportara bideratu zuten, valentziarren pozerako eta emoziorako.

Ez da diru-kopuru izugarria izan, baina musikari mutrikuarrek valentziarrei laguntzeko burututako elkartasun ekimena, txaloga-ria.

## RECYSMART PROIEKTUAREN OTSAILEKO EMAITZAK

Mutrikuko Udalak eta Debabarrenako Mankomunitateak lankidetzan ezarritako proiektuak honako datuak utzi dizkigu otsailean: 120 erabiltzailek guztira 57 kilogramo birziklatu dituzte. Ondorioz, 463 litro ur eta 139 kilogramo CO2 aurreztu dira, 7 zuhaitzek xurgatzen dutenaren baliokidea hain zuzen ere.

Puntuazioari dagokionez, 37 erabiltzaile sartu dira zozketan eta otsaileko saridunak honako hauek izan dira: Jon Larruskain 86 punturekin, Marijo Arroña 78 punturekin, Julene Usobiaga 73 punturekin, Rosa Mari Elordi 51 punturekin eta Itoitz Furundarena 44 punturekin. Saridun bakoitzari Bertan merkataritako elkarteko establezimenduetan gastatzeko 20 €-ko bonua egokitu zaio. Mila esker parte-hartzaile guztioi eta jarraitu horrela!



## EUSKARA IRAKASLEEN LAN-POLTSA ERATUKO DU UEMAK

Zenbait herritan arazoak izaten dituzte tarteka, udal euskalegietan lanean aritzen diren irakasleen ordezkoak lortzeko. Egoerari aurre egiteko, lan-poltsa bateratua sortzea eta irakasleak lan-poltsa horretatik kontratatzea erabaki dute udalek, oinarriak UEMArekin batera landuta. Martxoaren 28ra arte izena eman ahal izango dute interesa dutenek. Eskabideak UEMaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke, eskura dagoen ereduak erabiliz. UEMaren Azpeitiko bulegoan ere aurkez daitezke, bertatik bertara. Baita posta-bulegoan ere, aurkezteko epea amaitu baino lehen. Baldintzak eta informazio gehiago: [www.uema.eus](http://www.uema.eus)

**LAN-POLTSA**

UEMAko kide diren herri udal euskaltegiatarako

**EUSKARA IRAKASLEAK**

Izena emateko azken eguna: martxoak 28

Oinarriak, informazioa eta eskaera-oriak: [uema.eus](http://uema.eus)

UEMA



## EUSKARALDIA BADATOR

### Euskararen erabilera aktibatze mugimendu soziala

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da, Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

Euskaraldiaren helburuak zabaltzeko unea iritsi da: ez da soilik ariketa egun horietara mugatzen den dinamika, euskararen erabilera aktibatze mugimendua elikatu eta gizartearen errota nahi duen ekimena baizik.

Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia hizkuntza-ohiturren inertziak astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea da, eta, horrez gain, entitateek ere euskaraz bizitzeko aukerak eta neurriak hartzea sustatu nahi da. Euskaraldiak, modu kolektibo eta sozial batean, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen du, euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak eta espazioak sortuz.

Gure herrian, herriko erakunde nagusi den Udalak eman du izena eta udalerrigisa ere Mutriku izena emanda du. Datozen asteetan herritarrok Euskaraldian parte hartzeko gonbitea jasoko dugu, euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko. Informazio gehiago: [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



## EGAÑA ERABILGARRI

Martxoaren 3tik zabalik egongo da egunero 09:00-21:00 ordutegian Egaña Gune estali berria. Bertan erabilera anitzak izan daitezkeela aurreikusita, gunearen erabilpen araudia idatzi du Udalak, [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) webgunean kontsulta daitekeena. Erabilera librea, alokairua eta kirol elkarten erabilera uztartuko dituen egutegia prestatu da, instalakuntzak izan ditzakeen eskakizunak antolatu nahian.

Instalakuntzako kantxa alokairuan hartzeko aurrez erreserba egin beharko da Kiroldegiko harrerara deituta (943603175) honako ordutegian: Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:30 eta 16:00-21:30 / Larunbata: 09:00-14:00 / Igandea: 10:00-12:30

|             | ASTELEHENA       | ASTEARTEA        | ASTEAZKENA       | OSTEGUNA         | OSTIRALA         | LARUNBATA        | IGANDEA          |
|-------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| 09:00-10:00 | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | KIROL ELKARTEA   |
| 10:00-11:00 | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        |
| 11:00-12:00 | SAMIELA          | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | SAMIELA          |                  |                  |
| 12:00-13:00 | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA |                  |                  |
| 13:00-14:00 | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA |                  |                  |
| 14:00-15:00 | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA |
| 15:00-16:00 | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA | ERABILERA LIBREA |                  |                  |
| 16:00-18:30 | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        |                  |                  |
| 18:30-19:30 | KIROL ELKARTEA   | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        | ALOKAIRUA        |                  |                  |
| 19:30-20:30 |                  | KIROL ELKARTEA   | KIROL ELKARTEA   | KIROL ELKARTEA   |                  |                  |                  |

ALOKAIRUA  
TARIFAK ETA PROZEDURA

MUTRIKUN ERROLDATUA  
ARGI GABE 5€ -baita-  
ARGI GABE 10€ -baita-  
96 Odu puntuk erreserbatzeko adina

MUTRIKUN EZ ERROLDATUA  
ARGI GABE 10€ -baita-  
ARGI GABE 15€ -baita-  
24 Odu puntuk erreserbatzeko adina

ERRESERBAK  
KIROL ELKARTEA  
HARRERARA  
943603175



## VELUTINA ESKOLAN

Datozen hilabeteetan Goizeko Izarra ikastolako eta Samiela eskolako ikasleek *Velutina Eskolan* izeneko proiektu pilotuan parte hartuko dute EAeko beste ikastetxe batzuekin batera.

Azken urteetan, *Vespa Velutina* espezie inbaditzailea edo denontzako ezagunagoa den liztor asiaticoa, arazo ekosoziala bihurtu da eta, horrexegatik, *Velutina Eskolan* ekimenaren helburua, Asian jatorria duen liztorraren aurka egitea da Euskadiko ikastetxeetan tranpa selektiboak jarri. Zergatik dira selektiboak? *Vespa Velutina* liztorra baino txikiagoak diren insektuak tranpara sartuz gero, ateratzeko aukera dutelako.

Honez gero, irudikoak bezalako ontzi eta kartelak herriko hainbat txokotan ikusiko zenituzten: horiexek dira liztor beltz erreginak harripatzeko tranpak. Izan ere, otsail bukaeratik ekain hasiera arte *Vespa Velutina* erreginak habi berriak egiten hasten dira. Horregatik, garrantzitsua da tranpatzea sasoi honetan egitea arrakastatsua izateko aukera baitago.

Tranpa horiek asteroko edo hamabosteroko kontrola izango dute eta bertan erortzen diren liztorren zenbaketa egingo da. Lortzen diren datu guztiak Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko dira eta urteko txostena egiteko erabiliko dira.

Azken batean, proiektu honekin espezie inbaditzaile honek suposatzen duen arazoa leuntzen laguntzarekin batera, gizakiaren etxea den naturara hurbiltzeko aukera izango dute ikasleek, gutako bakoitzak haren zaintzaren ardura daukagula ulertzeko aukera bikaina izanik.



- LIZTOR ASIARRA -  
TRANPATZE KANPAINA

Mesedez, ez ukitu tranpa.  
Edozein arazo izanez gero jarri  
ikastetxearekin harremanetan:



GOIZEKO IZARRA IKASTOLA  
Samiela  
Eskola mutrikuarra

## SALTO, UDALEKU EUSKALDUNAK

Udalerri euskaldunetako gazteentzako udalekuak antolatu ditu aurten ere UEMAk. Azken urteotan gero eta arrakasta handiagoa du ekimenak eta, beraz, aurten ere bi txanda izango dira, ekainean eta uztailen. Txanda bakoitzean 60 lagunentzako lekua izango da. Tolosaldean eta Goierrin barrena ibiliko dira aurten gazteak, Baliarraindik Idiazabalera, Zaldibia eta Ataun ere zeharkatuz. Herri bakoitzean bi gau egingo dituzte. Martxoarekin batera zabaldu du UEMak izena emateko epea, eta martxoaren 31n amaituko da. Prezioa: 175 euro.

Aurreikusitako gazte kopurua: 120 lagun guztira, txanda bakoitzean 60 lagun. Kopurua gaintitzen bada, lurraldetasuna, genero irizpidea, adina eta izena emateko ordena hartuko da kontuan taldea osatzeko.

Hemen informazio guztia, izena emateko loturarekin: [labur.eus/salto2025](https://labur.eus/salto2025)



# SALGAI

ANSORREGI oinetakoak • BERISTAIN liburu-denda • SABINA janari-denda •  
KABE janari-denda • APARRA jantzi-denda • Turismo bulegoa



## Mutriku eta mutrikuarrak



berria

## ARGAZKI ZAHARREN LIBURU BERRIA

«Mutriku eta mutrikuarrak argazkitan II»

**Liburua 20 eurotan salduko da honako establezimenduetan:**

- Ansozregi zapata-denda (Erdikokale)
- Beristain liburu-denda (Goiko plaza)
- Sabina janari-denda(Goiko plaza)
- Turismo bulegoa

## IRAKURZALETASUNA BULTZATZEN

Anaiarte Elkartean direktiba aldaketa eman zen iaz, eta hor dihardute kide berriek lanean jo ta su . Ekimen asko lehengoek jarraipena dira, eta bazkideek oso gustura hartzen dituztenak: podologoa, egun pasako bidaiak eta egunetakoak, Gabonetako otarrak eta loteria, kina...

Aurten ere «Irakurketa erraza» izeneko ekimena jarri dute martxan. Ideia da uda aurretik astero saio bat antolatzea eta etxean irakurritako liburuaren inguruko lanketa eta hausnarketa egitea.

Irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako saio hauen aurkezpenean antolatzailerek adierazi dute jubilatutako ondoren ere irakurtzeko momentu gozoak ekar ditzakeela, eta Anaiarteko bazkideak parte hartzera animatu nahi dituzte.



## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Udaberria heltzean urteroko hitzordua dugu Ogasunarekin, aurreko urteko diru kontuak egin eta gehiago ordaindu, dirua atzera jaso edo parra egin erabakitzeke. Diruak hizkuntzarik ez duela esaten bada ere, kontuak emateko erabiltzen den errenta aitorpena hizkuntza batean edo bestean egin daiteke: euskaraz edo gaztelerez. Huskeria dirudien erabaki horrek, euskaraz edo gaztelerez aurkeztekoa alegia, eragin handiak sor ditzake etorkizunean erakunde ekonomikoek beren eskaintzetan euskara ere kontuan har dezaten. Hori dela eta, UEMAK deia egiten du 2024 urteari dagokion Errenta aitorpena euskaraz aurkez dezagun. Udalerrri euskaldunetako bizilagunon jokabidea, guk ez dakigula ere, eredugarria da euskaldunak ez diren eremuetan bizi direnentzat. Guk, gurean.






## La Chimera

Inguruko izerrek betetzen ez zaitxun momentua. Zure lekua zoen tokixan eztauala sentitzen dezun hori. Dana atzian laga eta ihes eingo zenduken unia. Konturatu gabe, billa zabilten hori ez dezula iñun topatuko, zeure baitxan ez bada.

Oan dala urte batzuetako Italian, etxera bueltan datorren mutil bat atzian laga bihar izan zoan bizitzara itzuliko da. Denboran ikusi gabeko lagunak eta aurretik ezagutu gabekuak aurkitxuko ditxu bertan; aspaldi ahaztutako altxorrekina batera.

Edertasuna geuk billatzen degun lekuetan do. Horren kontzientzia hartuz gero, gai izango gera inguruan dakaguna apreziatzeko. Holako pelikulek hortaz konturatzen laguntzen digute.

**«Sentitzen det, sekula ez dezu jakingo zela  
amaitzen dan»**



### FITXA TEKNIKOA

**Izenburua:** La Chimera

**Zuzendaritza:** Alice Rohrwacher

**Gidoia:** Alice Rohrwacher, Carmela Corvino,  
Marco Pettenello

**Aktoreak:** Josh O'Connor, Carol Duarte, Vincenzo  
Nemolato, Isabella Rosellini (...)

**Argazkia:** Hélène Louvart

**Iraupena:** 2h 11m

## Puntobobo

Itxaso Martin Zapirain



Idazlearen bigarren eleberria da Punto-bobo (Erein, 2024).

Bertan, idazleak bi hari aurkezten ditu. Alde batetik, «besteak modukoa ez den» alaba erditu duen emakumearen eta alabaren beraren eraldioko gorabeherak, eta, beste alde batetik, «besteak modukoa ez den» biloba baten inguruan mintzo diren ama eta amonaren arteko elkarrizketak.

Estiloari dagokionez, hari bakoitzak elkarrengandik oso ezberdinak diren bi idazteko modu dauka: gaur eguneko ama-alaben elkarrizketek duten adierazpen zuzena argi kontrajartzen zaio garai bateko egoera aurkezten duen

narratzaile orojakilearen azalpenari.

Idazlea protagonisten psikologian sartzen da eta hainbat dira mahai gainean jarritako gaiak: osasun-mentala, dolua, estigma, gizarte-bazterketa, familia-harremanak... eta esan daiteke azken horiek gailentzen direla, aurkeztutako bi planoen atzean ama-alaba harremanak eta horiek daukaten intimitatea, liskarrak edota konplizitatea baitaude. Aipatutako gai horiek erabiltzen ditu egileak kritika soziala egiteko; aspaldiko garaian kokatutako egoera batetik abiatutakoa izanagatik, gaur eguneko gizarteari bikain egokitu dakioken kritika, hain zuzen ere.



Camping   
**Galdona**

JATETXE ETA ERRETEGIA  
Galdona Baserria

Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

**LEA-AR-TIBAI**

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960  
Mug: 659 879 268

Iera Naberan Uranga

# “Harritu eta gogaitzen direnek ohitzen joan beharko dute”

Legazpiko parkean lan egiten duten taldekideetako bat dugu Iera Naberan Uranga (1991) mutrikuarra. Gipuzkoan dauden emakume suhiltzaile bakarretarikoa; gutxi baitira lanbide honetan. 33 urte ditu eta bi urte eta erdi darama lanean. Tolosa eta Eibarreko parkeetatik pasa ondoren, egun Legazpin dago. Suhiltzaile lanbidera berandu sartu den arren, pasioz bizi duela adierazi digu. Gipuzkoan Foru Aldundiko zortzi parke ditugu, horietako bi Goierrin kokatzen dira; bata Legazpin eta bestea Ordizian.

## Suhiltzaile izateko erabakia noiz hartu zenuen?

Ez da txikitandik buruan izan dudana lanbidea; baina, horrela suertatu da. Ez dut eredurik izan nire inguruan eta herritik gertu ere ez dugu suhiltzaile etxerik ezagutu. Orain dela zortzi bat urte, hogeita zazpi nituela, nahiko berandu nire ustetan, izeko gerturatu zitzaidan esanez suhiltzaile postuetarako oposizioak atera zituztela. Jarraian, kasualitatez, beste mutrikuar batek ere gauza bera aipatu zidan; gaur egun bera ere suhiltzaile lanetan dabil. Eta, izena ematera animatu ninduten, hain zuzen ere suhiltzaile posturako. Orduan, segituan hasi nintzen gidari baimena ateratzen, gaur egun suhiltzaile ia guztiak direlako suhiltzaile eta gidari.

Pertsonekin zuzenean lan egitea gustuko nuela betidanik izan dut garbi, eta nire ikasketak ere hortik bideratu ditut. Ordea, suhiltzaile izatea ez nuen pentsamenduan. Gauzak horrela, irakasle egin nintzen, hezkuntza berezia espezializazioan. Eta ondoren goi mailako kirol teknikari zikloa burutu nuen Donostiako Easo politeknikoan, kirola ere betidanik izan baita nire pasioetako bat. Arlo honetako praktikak bukatu aurretik lanean hasi nintzen kiroldegi batean, urte batzuk hor igaro eta, jarraian, bost urte egin nituen hezkuntzan. Bide batez, urte horietan suhiltzaile posturako ikasketak burutzen jardun nuen.

## Ibilbide horretan oztoporik aurkitu duzu?

Ikasketen garaian lagun artean sentitu izan naiz beti. Suhiltzaile egiteko ibilbidean, aldiz, gidabaimena eta beste baimen batzuk ateratzen hasi nintzenean konturatu nintzen emakume izateak nola baldintzatzen gaituen. Ez nire aldetik, baizik eta gizarteak jartzen dituen genero rol eta estereotipoengatik. Esaterako, kamioi gidari posturako azterketara joan nintzenean azterketariak segituan galdetu zidan: “zer zatoz, autobus gidari azterketara?”. Ez zuen espero kamioi handiak gidatzeko azterketara nindoanik eta ordurako makina bat emakume ari ziren kamioilari lanetan. Hor ikusten da zer nolako aurreiritziak ditugun eta zein azkar sailkatzen zaituzten. Azterketa egiteko momentuan ere nireganako begiradak gehiago zeudela sentitu nuen: beste guztiak gizonezkoak ziren. Iruzkinetan ere, “beno, nahiko ondo moldatzen da”. Nahiko ondo ez! Gaingitu egin nuen! Orokorrean, egin dudana ibilbide osoan, eta baita egun ere, gizonezkoek baino gehiago demostratu behar izan dudala garbi daukat. Oposizioak azterketetan ere emakume oso gutxi bildu izan gara. Egia da azken urteetan emakume gehiago animatu direla, baina, hala eta guztiz, oso gutxi. Bizkaian, egia esan, emakume gehiago daude, suhiltzaileen plantila ere handiagoa da.

## Zer jakin behar da lanbide honetan ongi moldatzeko?

Suhiltzaile izateko beti jartzen dituzte eredu gizon gihartsuak, indartsuak eta handiak. Baina lanerako ez da erreala. Izan ere, osasuntsu mantendu behar da, erresistentzia landu, indarra ere bai, eta

esandako hori ez da lehen gaitasuna. Kirola egin eta gauza espezifikoak entrenatu behar dira, baina ez pelikuletako super heroia izateko beste. Beraz, eredu indartsu eta gihartsu horiekin puskatu beharra dago. Suhiltzaile perfila hainbat adarrek osatzen dute: egoera emozionala eta psikologikoa; egoera fisikoa; taldean lan egiteko gaitasuna; eta tresna edo erremintak erabiltzen jakitzea. Suhiltzaile izateko lanbide desberdinetan trebea izatea da gakoa; erreminta pilo bat izaten ditugu kamioietan eta horiek erabiltzen jakitea ezinbestekoa da. Iturgintza, elektrizitatea, arotzeria, mekanika... zenbat eta gehiago jakin, askoz ere hobeto moldatuko zara edozein larrialditan. Nire ustez, bestalde, oso garrantzitsua da harremanetarako gaitasuna izatea, jendearekin tratatzen jakitea.

## Emakume suhiltzaileen kopurua ez da handia. Zergatik ote?

Hirurehun lankide inguru ditut. Ni orain dela bi urte eta erdi hasi nintzen lanbide honetan, eta laugarren emakumea naiz hemen. Orain dela urte batzuk publizitate handia egin zuten emakumeak zerbitzu honetara erakartzeko, baina gaur egun oraindik ez da aurrerapen handirik eman. Gure jantzi eta erabiltzen ditugun tresnetan nabarmentzen da bereziki: erabiltzen ditudan eskularruen neurri txikiak ere handiak dira, hasieran prakak ere ez zeuden emakume gorputzera egokitzeko eginak, baina azken aldiako material eta arropetan aldaketa nabarmena eman da; gure gorputzerako egokiak direnak ekartzen hasi dira. Aldagelak ere orain ari dira egokitzen, orain arte moldatzen ginen nolabait, baina, gero eta emakume gehiago gaudenez, espazio eta logistika arloan moldaketak egiten ari dira. Lehen, emakumeak lanbide honetan sartu zirenean emakumeen aldagelarik ere ez zegoen. Betidanik gizonezkoek burutu duten lana eta lekua izan da. Alegia, denbora behar da jendea egokitzeko, orokorrean lankide oso onak ditut, eta horietako asko pozik agertzen da emakumeak ikusita: animatu eta lagundu ere egiten dute. Gutxi batzuk harritu, eta gogaitzen direnak ohitzen joan beharko dute. Esango nuke orokorrean gizartea oraindik ez dagoela prestatua emakume suhiltzaileak ikusteko. Azkenean gure laneko harremana, elkarbizitza eta egunerokoa gizartearen islada da, eta ez dut esango emakume izatearren iruzkin edo detaile diskriminatzaileak ez dugunik jasotzen. Ikusi eta sentitu ditudalako diot, baina oso gutxi dira eta kolektibo konkretu batzuk besterik ez: “hau nik eramango dut”, “zuk heldu zama hortik”, “ondo ikusten zara hau gidatzeko?” lankide gizonezkoek egiten ez zaizkien iruzkinak dira. Azken finean, hori guztia eguneroko eta momentu oro emakumeok kalean jasaten dugun errealitatea da.

## Nolakoa da zuen egunerokoa?

Herritarrek 112 zenbakira deitzen duten bezain azkar bideratzen dute larrialdia dagokion suhiltzaile etxera, eta, larrialdiaren mailaren

**ASTIGARRAGA ANAIK, S.L.U**

**ERAIKETAK**

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 beheka - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

**APALLU**  
**ITURGINTZA**

Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61

San Agustin,3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es



arabera, modu batera edota bestera jokatzeko dugu, eta beharrezko baliabideak hartzen ditugu. Ondoko parkeetako suhiltzaileak ere adi mantentzen dira. Irteera gehienetan, urak, argindarrak, enborrak... eragindako kalteak izaten dira, eta horiei erantzuteko prestakuntza izan behar da. Gipuzkoako zerbitzuan gauden suhiltzaileen profila, aurrean aipatu dudak bezala, "manitas" batena dela esango nuke. Hala ere, osasun arloan ikusten dut hutsune nabarmena, hau da, sorosle lanetan. Gure egunerokoan eta larrialdietan jendearekin zuzenean harremana mantentzen dugu, gehienetan tentsio egoeretan, istripu batean esaterako. Momentu horietan izugarritzko garrantzia dauka jendea eskaintzen diotzun harrerak eta egoera lasaitzeko dakazun gaitasunak. Pertsona horiekin nola jokatu jakitea oso garrantzitsua da, gehienetan istripura gu geu heltzen baikara lehenak. Hori dela eta, lehen sorospenak jakiteaz gain, jendearekin harremana zaindu behar dugu. Orokorrean, legeak dioenari heldu behar diogu, eta, nahiz eta istripura lehenak heldu, sanitarioak heltzen direnean beraiek izaten dute eskumena, beti ere gurekin elkarlanean, hor jendearen bizitzak duelako lehentasuna, eta beraiek direlako horretan adituak. Esaterako, baso suteetan basozainak dauka agintea eta bere lan taldearekin koordinatzea garrantzitsua da. Bakoitzak gure lana betetzen dugu besteena zapaldu gabe, eta denon artean ongi koordinatzea ezinbestekoa da. Suhiltzaileen artean ere postu ezberdinak ditugu: gure gainetik kabo, sarjentu eta ofizialak ditugu. Diputazio bakoitzak, bestalde, legeri berdina izan arren, eta lan berdina egin arren, lantalde antolakuntza eta protokolo ezberdinak ditu; esaterako, Gipuzkoan eta Bizkaian ez dugu berdina jokatzeko gauza batzuetan.

#### Egoera zailetan erantzutea ere tokatuko zitzaizun...

Nahiz eta ibilbide motza egin dudak, baditut kontatzeko bizi izandako hainbat egoera. Lanean hasi eta urte horretan, baserri batean gertatu zen istripu batera joateko deia jaso genuen. Ohikoa da zuhaitzak moztzen izaten diren istripu txikiak. Ordukoan, ordea, zuhaitz baten adarrak moztzen ari zen hirurogeita hamar urte inguruko gizona zuhaitzetik lurrera jausi zen, eta egoera oso txarrean aurkitu genuen hara heldu ginenean. Gorputzaren jarrera ez zen normala. Gizonezkoa suspertzen jardun genuen. Familia bertan egoteak ez zuen lana batere errazten, emaztea bertan zegoen eta hasiera baten inor ez zen berarengana hurbildu lasaitzera. Egoera horiek zailak dira kudeatzen eta istripu hura badut gogoan. Beste larrialdi bat ere badut gogoan, lurrazpiko garaje batean kotxe elektriko bat erretzen ari zenekoa. Lankide bat eta biok sartu ginen bertara, horrelakoetan beti binaka joaten gara eta. Izugarritzko kea zegoen, eta tenperatura oso altua. Laguna bat-batean bistatik galdu nuen, eta momentu horretan nire bizitza soka mehe baten gainean dantzan ikusi nuen. Horrelako egoera batek hankak lurrean jartzera eramaten zaitu, bizitza segundo batean aldatu baitaiteke. Elkar ezagutzeak, lankidetzak eta elkarrekiko konfiantzak izugarritzko garrantzia dauka horrelako egoeretan.

#### Eta gogoan duzun momentu hunkigarriak eta alaiak bai?

Helduekiko begirada berezia dudala esango nuke, eta horiek eskaini dizkizate momentu alaiak. Bakarrik bizi diren helduak oso esker onekoak dira. Etxean duten tele-asistentziaren bidez jartzen dira gurekin harremanetan, eta askotan nahiz eta ez izan oso istripu larria, egiten diguten harrera bikaina da. Beraiekin hitz egiteko tartea nahi izaten dute eta freskagarriak eta janaria eskaintzen dizkigute. Guk, noski, eskertu bai, baina ezin diegu ezer hartu zerbitzuan baikaude. Gaur egun horrelako deiak askotan izaten ditugu.



ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...

# SAN JUAN JATETXEA

Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa  
Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

# ELORRETA

ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA

Asier Lersundi 680 579 961  
Kepa Martinez 617 842 004

San Agustin, 4B  
MUTRIKU  
Tel./Faxa 943 60 43 97  
elorretaeraiketak@gmail.com

# ZAPATARIAK, LARRUA eta portuko zurrategiak

Gaur egun, janzen ditugun zapatak ez dira Mutrikun egiten. Sasoi batean, baina, herrian bertan egiten ziren. Zero kilometroko zapatez gain, oinetakoak eta bestelakoak egiteko larrua ere bertan prestatzen zen. Herriko zapatariek leku jakin bat zuten larrua ontzeko: portuko zurrategiak edo "adoberiak".

1576ko uztailaren 20an Mutrikuko udalbatzak, Joan de la Plaça errejidorearen eskutik, arazo baten berri izan zuen. Aztergaia izenburu honekin agertzen da akta-liburuan: *sobre tenerias y adobo de cueros*. Gainerako batzarkideei azaldu zien herriko zapatari batzuek larruak ontzen zituztela Ondabarro aldean eta horren eraginez erreka ura zikintzen zela, *en el arroyo de Ycusaras desta villa algunos çapateros desta villa se abian atrebido de curtir y çurrar cueros cuya peleja caya a la agoa y enzuçaba la agoa*. Praktika txar hura eten nahian agindu zuten larruak herriko ohiko zurrategietan baino ezin izango zirela ondu, *de aqui adelante no sea osado de curtir ningun cuero en el dicho arroyo ni en otro desta villa, sino en las tenerias acostunbradas*. Erabakia bete ezik, 4 errealeko isuna.

Larrua ontzea adierazteko, gaztelaniaz, *adobar*, *curtir* eta *zurrar* aditzak erabiltzen zituzten orduko eskribauek; zurrategiari, langintza horretarako tokiari, berriaz, *adobería*, *curtidería* eta *tenería*. Non zeuden, bada, Mutrikuko zurrategiak?

## Portuko adoberiak

Animalien larrua ontzeko prozesuak urak zikintzeaz gain, usain gozo-gozoa ere ez zuen uzten, hori dela-eta zurrategiak herri-guneetatik apur bat aldentuta egon ohi ziren. Mutrikun, esaterako, harresietatik kanpo zeuden, Ibirriaga auzoan. 1549. urtetik dokumentatzen dira portuko zurrategiak, *adoberias*.

Zapatarientzat oinarri-oinarrizko lehengaia zen larrua, eta, aukeran, nahiago izaten zuten herrian bertan prestatu zapatak eta bestelakoak egiteko behar zuten materiala.

Lehenik eta behin, animalien larrua eskuratu beharra zegoen: idiarena, ahariaarena, txahalarena... Gero, putzu batean ura eta karea nahastu, eta bertan edukitzen ziren larruak 40 bat egunez. Ileak eta bestelako hondakinak kendu, eta behin baino

gotan pasatzen ziren ur garbitatik. Ondo zurratu edo astindu behar izaten zen larrua. Gero leundu egiten zen.

Baina larrua ez usteltzeko pausurik garrantzitsuena falta zen: larrua ontzea. Horretarako ezinbestekoa zen taninoak erabiltzea. Zuhaitz-azalak erabiltzen ziren. Badakigu Mutrikun haritz azala behintzat erabili zela lan horretarako. 1718. urteko udal kontu liburuko apunte labur honetatik atera dugu datua: *132 reales que deve cobrar de Pedro Ygnazio de Montalivet por la corteza que se le vendio de los corbatones*. Batetik, badakigu beste dokumentu batzuetatik Pedro Ygnacio zapataria zela; eta, bestetik, badakigu ontzigintzarako erabiltzen ziren korbatoiak haritz egurrez egiten zirela.

Ondoren, lehortu egiten ziren, zabal-zabal jarrita bastido-reetan. Gehiegi ez lehortzeko, seboa ematen zieten larruei.

## Hango eta hemengo larruak

Larru mota asko agertzen zaizkigu dokumentazioan. Batzuk herriko zapatariek ontzen zituzten; beste batzuk, berriaz, onduta erosten zizkieten beste herri batzuetako larru-ontzaileei.

1544an Martin de Gamboak, 75 errealean trukean, 10 larru saldu zizkion Mutrikun bizi zen Garçia de Ascoaga zapatari aules-tiarrari, *por razon de diez cueros adobados de hirlanda*.

1546an Miguel de Recabarren eta Domingo de Reten mutrikuarrek 47 larru saldu zizkieten Eibarko Pedro de Ameçu zapatariari, *47 cueros bacunos de yrlanda a presçio de 7 reales de cada cuero*.

1559. urtean Martin de Sarasua mutrikuarrek 12 idi-larru saldu zizkion Anton de Ybarra eibartarrari, *doze cueros bacunos de buyes sebones de Françia*. 35 erreal larruko. Mutrikuar berberak 28 larru saldu zizkion 1564an Martin de Ciorraga azkoitiarrari, *4 cueros bacunos e 24 cueros de carnero*. Prezioa: 12 dukat.

1560an Joan de Ybirik ahuntz-larruak saldu zizkion Juan de Yturriaga zapatariari urrezko hiru dukaten trukean, *çiertos cueros cabrunos*.

1562an Joan Lopez de Muxica zapatari mutrikuarrek (*maestre çapatero*) zenbait larru, *buenos cueros cordobanes*, erosi zizkion Bergarako Pedro Yguilleta larru-ontzaileari, *maestre çurrador*. Prezioa: urrezko 14 dukat.

1564an Joan de Muxika zapataria txahal-larru fin batzuk, *çiertos bedelines en pelo*, erosi zizkien Joan de Azterrica eta Joan de Yurreri. Urte berean hainbat txahal-larru saldu zizkien Muxikak debar batzuei, *1.200 cueros bedelines en pelo*.

1565an Miguel de Aguirrek 31 larru saldu zizkien Cristobal de Yrarraçabal eta Joan de Reteni: *31 cueros bacunos de yndias*. 18 erreal larru bakoitzeko.



Larruak



1567ko irailean Joan de Muxika zapatariak 60 txahal-larru erosi zizkion Pedro de Recabarreni, *cinco docenas de cueros bezerros blancos*.

Joan de Arechua zapatariak, bere testamentuan jaso zuenez (1612. urtean), 14 dukat zor zizkion Durangoko larru ontzaile bati, a Agustin *el currador de Durango*.

1635ean Martin de Larralde zapatariak, *oficial de azer calçado*, hainbat larru zituen ontzen zurrategietan eta bere etxean: *56 cueros de bacas y bueyes, 18 pellejos de cabrones y 40 de perros marinos...* Adoberietako putzuez gain, lan hartarako hau ere erabili zuen: *la erramienta de su oficio y dos tinas grandes de curar cuero*.

1720an Pedro Ygnacio de Montalivet zapatari mutrikuarrak Mutriku, Deba eta Getarian haragiaren horniketaz arduratzen zirenei hainbat larru erosi zizkien: *diferentes cueros de bueyes y pellejos de carneros*. Guztira, 33 idi-larru eta 175 ahari-larru.

### Zapatariak, kalean eta Ibirriagan

Kontu ezaguna da zapatak egiten dutenei «zapatariak» edo «zapataginak» esaten zaiela. 1736. urtean Erdikokaleko etxe batek *Zapataricoa* izena zeukan. Ana M<sup>a</sup> de Olalde Ybarra zen jabea, eta, hortik tiraka, jakin dugu aita zapataria zuela: Laçaro de Olalde Ybarra (1622-1703). Kaleko beste etxe batzuei bezala (Argingoa, Zidargingoa...), lanbideak eman zion izena etxeari. Baina, Laçaro zapatariak, etxe horrez gain, bazuen beste bat, Ibirriagan. Etxe hura Lorenço izeneko semeari eman zion dohaintzan, ezkondu zenean (1680. urtean). Etxearekin batera, aldameneko baratzetxoa ere eman zion, baita beste hau ere: *la caldera y la tina y lo demas en que se benefiçia las pieles para hacer calçado*. Bistan dago aitaren lanbidea zuela semeak; dena dela aita baldintza bat jarri zion semeari: Laçaro bizi zen bitartean, aita ere larruak ontzeko tresnak eta elementuak erabiltzeko eskubidea izango zuen, *aya de tener mano asi en la dha casa como en la caldera y tina y en lo demas mientras benefiçiare sus pieles*. Aita hildakoan, dena semearentzat. Gauza gehiago eman zizkion semeari, besteak beste: *mas el poço donde se suelen poner las pieles con cal para curar para haçer çapatos*. Putzu hura ere aita erabili ahal izango zuen hil bitartean.

### Muxika zapataria

Pixka bat atzerago egingo dugu. Herrian artisauak egotea funtsezkoa zen; izan ere, horrela, errazago eta merkeago eskura zitezkeen salgaiak. Hori dela-eta, tarteka, udalak erraztasunak ematen zizkien lanbide ezberdinetako maisu eta ofizialei herrian finka zitezen.

1560ko irailaren 6an Mutrikuko udalbatzarrean adierazi zuten zapatari gutxi zegoela herrian, *abia gran falta de çapateros y se le recreçia gran costa a la dicha villa de calçado que benia de fuera*. Zapataria bat prest agertu zen herrira etortzeko, baina baldintza batekin: udalak doan eman beharko zion bizilekua bi urtez, *Jn<sup>o</sup> Lopez de Muxica ofiçal capatero muy buen ofiçal queria venir a esta villa con que le diesen la casa pagada por dos años*. Onartu egin zuten kondizioa, eta Anton de Corostolak Arriturriagan (Txurruka plazan) zeukan etxea ematea erabaki zuten. Udalak hartu zuen bere gain etxearen errenta ordaintzea.

Urte batzuk aurrerago, 1569an, Muxika zapatariak Domingo de Ybarra pilotuaren etxea eta zurrategia hartu zituen errentan, *mi tierra solar y adoberia que tengo en la parte do dicen la adoberia, junto al arroyo que baxa de Ybirriaga*. Dokumentazioak,



Zapatei kalia (Portu kalea)

ematen ditu: *para el serviçio de adobar cueros (...)* en la qual dha adoberia estan fechos los agujeros donde se echan los cueros. Urteko errenta: bost erreal eta erdi.

### Zapatariak haserre

1720ko azaroaren 5ean liskarra izan zuten zapatari batzuek portuko zurrategietan, *en la adoveria del varrio de Ybirriaga*. Pedro Ygnacio de Montalivet zapatari maisua bere menpekoen lanak gainbegiratzera hurbildu zen, *tenia travajando sus manzevos o ofiziales*. Beste zapatari baten ikasleekin eztabaidatzen hasi, eta lurrera bota zuten eta izterrezurra hautsi zioten. Auzian, lekukoetako batek eztabaidaren abiapuntua aipatu zuen: itxura denez, larruak ontzeko erabilitako ur zikinak itsasora botatzen zituzten, baina, nagusiak hala aginduta, langileetako batzuk gainerakoak baino gorago jarri ziren... eta, jakina, beheragokoak haserretu egin ziren ur zikinengatik, *viendo el confesante que la agua en donde travajava le ensuziava con cal y echava a perder los cueros de avajo*. Beste lekuko batek azaldu zuen egun hartan zapata-azpiak edo zolak egiten zihardutela, *en el venefizio de algunos cueros para suelas de zapatos*.

Garbi geratu da Mutrikuko portualdean, sasoi batean, arrantzaleak ez ezik zapatariak ere ez zirela falta. Portu kaleari, mutrikuar askok, oraindik ere “Zapate(r)i kalia” esaten diote. Gorde dezagun gogoan izen hori aspaldiko zurrategi eta zapatari haien omenez.

Josu Larrañaga Arrieta

# Miren Itziar Lete Andonegi

## Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko Lehendakaria



Hamabi urte GEPFan, azken lau urte hauetan lehendakari ardurarekin egin ondoren, goi-karguetatik alboratzeko ordua iritxi zaiola erabaki du Miren Itziarrek, eta pilota mundua beste esparru batetik bultzatzen jarraitu.

Aurten betetzen ditu ehun urte federazioak, eta buru-belarri ibili dira urte osoa edukiz osatzen ospakizun horretarako.

Milatik gora federatu-fitxa eta 2000 eskola adineko pilotari dituen GEPFren ildoetan zehar ere ibili gara elkarrizketan.

### Badirudi pilota arloan egin dituzun urteei bukaera emateko-tan zaudela...

Hamabi urte egin ditut GEPFaren barnean. Lehenengo laurak batzordekide bezala egin nituen, hurrengo laurak lehendakariorde bezala, eta azkenengo laurak lehendakari postuan. Beraz, urte batzuk egin ditudala uste dut, eta, bai, orain hauteskunde prozesuari hasiera eman diogu martxoaren 7an, eta hurrengo batzordea osatzean —martxo bukaera edo apirilaren hasieran— utziko dut nire kargua.

### Nola dago egituratuta GEPF?

Hirurogeita bost bat klubek, oker ez banago, osatzen dute federazioa, eskola adineko 2000 pilotari inguru daude, eta beste milatik gorak dute federatu-fitxa, modalitate guztietan: esku-pilota, zesta, pala-jokamolde ezberdinak, trinketea... erremontean

izan ezik, profesional mailan bakarrik jokatzen delako.

GEPFko zuzendaritza batzordea bederatzi lagunek osatzen dute: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta bost bokal, denak musutruk, borondatez, aritzen direnak. Horrelako estruktura baten lan-ordainduak ere derrigorrezkoak dira, eta horretarako, arlo ezberdineko zazpi teknikari ditu kontratatuta federazioak —gerentzia, administrazioa, eskola kirola, federatuak eta sare sozialak—, teknifikazio eta lan konkretu batzuetarako ere kontratatzen dira epe baterako teknikariak.

Zuzendaritza Batzorde hautaketarako taldeak aurkeztzen dira lehendakariyai izango denaren inguruan, eta, hala, klubak bozka bidez izaten dira aukeratuak. Batzordeko partaideak, normalean, alor ezberdinez arduratzen dira.

### Hainbeste klub, hainbeste modalitate eta hainbeste kategoria... Ez da erraza izango koordinaketa lana?

Klub bakoitzak bere antolakuntza du, kontuan izan behar da klubetako zuzendaritzakoentzat ere orduz kanpoko lana dela, eta gehienetan borondatezkoa. Beraz, zorion-tzekoa eta txalotzekoa da euren lana eta dedikazioa.

Horregatik, azken legealdian klubetako kirol arloko planifikazioa bultzatu nahian Gipuzkoako Foru Aldundiari Klubak Egitura Teknikoak Indartzeko Egitasmoa (KETIE) aurkeztu genion, hau da, federazioaren eta klubaren arteko komunikazioa sendotu eta azken horien kirol planifikazioa hobetu eta teknikari sarearen formazioa sustatzeko. Foru Aldundiak begi onez ikusi zuen proiektua eta martxan jarri genuen.

Digitalizazio arloa ere beharrezkotzat jotzen genuen. Lehiaketak, lizentziak eta klubaren arteko harremanak

**ARRIETA**  
AUTOZERBITZUA



J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01



**Kalbaixo**  
JATETXEA

Laranga Auzoa  
Tel. 943 60 32 56  
kalbaixo@gmail.com  
MUTRIKU - Gipuzkoa



kudeatzeko prozesuak digitalizatzeko informazioa modu argiagoan eta eskuragarriagoan izatea bermatu du. Sare sozialen eta webgunearen bidez ere, federazioaren jardura jendearengana hurbildu dugu, eta kirol honen jarraipena egiteko aukera zabaldu da.

Kirolari guztiak ez dira profesional izatera helduko, baina kirolak ematen dizkien baloreak bizitzako beste hainbat arlotan baliagarri izango zaizkie. Diziiplina, esfortzua, errespetua, talde-lana, porrotetik ikastea eta etengabeko hobekuntza bezalako balioek ez dute soilik kirol-esparruan balio; eguneroko bizitzan, lan-munduan eta harreman pertsonaletan ere funtsezkoak dira. Beraz, gure beste helburuetako bat klubei KETIEn bidez erreminta egokiak ematea izan da pilotarien prestakuntza osoa sustatzeko. Kirola bide bikaina da norbere buruari erronkak jartzeko, helburuak betetzeko eta hazkunde pertsonala bultzatzeko. Hori da, hain zuzen ere, kirolaren benetako indarra eta garrantzia.

Dena den, kudeatzen arlo zailena ekonomikoa da eta, era berean, behar-beharrezkoa proiektuak aurrera eramateko. Beraz Foru Aldundiaren dirulaguntzak eta babesleenak ezinbestekoak eta eskertzekoak dira.

### **Zeintzuk dira antolatzen dituzuen txapelketak? Eta, profesionalak zuen esparruan sartzen al dira?**

Arestian aipatu dugu erremontea izan ezik beste modalitate guztietan antolatzen direla topaketak eta txapelketak. Kontuan izan adin eta maila ezberdinetan antolatzen direla: federatuak, errendimendukoak, eskolartekoak, egokituak, emakumeak, aisialdia, selekzioa...

Pilota profesionala, berriz, enpresa pribatuen esku dago. Gure ustez, federazioen eta enpresa profesionalen arteko lankidetzak ezinbestekoa da pilotaren etorkizuna bermatzeko. Horregatik, federazioa lanean dabil enpresa profesionalekin harremanak estutzeko eta lankidetzak bideak irekitzeko, pilotaren etorkizun integral bat lortzeko helburuarekin.

### **Ehun urte beteko ditu aurturko GEPFak. Prestatuta al duzue zerbait ospakizunerako?**

Bai. Abuztuaren 9an beteko da mende bat GEPF sortu zela, eta aste batzuk izango dira aurkeztu genituela mendeurren ospatzeko egingo ditugun ekintzak. Jakina, nahiz eta egitaraua maila handi baten zehaztuta dagoen, beti izango dira ukitu beharreko gauzak, antolatu dugun ekintza-sorta zabalean.

Ospakizuna epe motz batean egituratu beharrean, urte guztira hedatzea pentsatu dugu, hileroko aktibitate ezberdinak egiteko asmotan. Donostiako Atano frontoian egin genuen aurkezpena, eta hasierako ekintza federazioaren aurpegi berritze bat irudikatuko duen logotipo berria azaltzea izan zen, baita aurtengo urtea adieraziko duen logotipoa ere, ehun zenbakia barnean duela sortze eta egungo urteen zenbakiarekin.

Beste ekintzen barnean, bitxikeria bezala, pilotari buruzko karta-joko bat prestatu da, eta, aipatu bezala, hileroko joango dira ekintza ezberdinak: martxoan, adibidez, emakumeak zuzendutakoak izango dira; jarraian bertso-saioak pilotarekin lotura izan duten edo daukaten bertsolariek osatuta; historia arloa ukituz, antzinako joko-moldeak aurkeztuko dira Alderdi Ederren, Donostiako Udalaren laguntzarekin; liburu bat ere osatu nahi da klub guztien ibilbideak azalduko dituenak... Kontuan izanik aurturko Urbiako aterpetxeak ere ehun urte bete-



tzen dituela, eta Gipuzkoako Aldundiak mila urte, hor gabiltza elkarrekin zerbait antolatu nahian: Urbiako zelaian, agian, bote-luzea —ezagutzen den pilota jokamolde zaharrena—, gauzatzea dugu xede. Jokamolde ezberdinetako pilota festak izango dira urtean zehar, eta, abuztuan, goi mailako jaialdi bikain batekin bukatuko dugu.

### **Mundu mailako nazioarteko federazioek, orain gutxi, onartu zuten Euskal Herriko Selekzioak bere izenarekin munduko txapelketan parte hartzea. Baikor al zara Espainia eta Kubako federazioen erreklamazioak direla-eta?**

Bai, Nazioarteko Euskal Pilota Federazioko partaideak eskubide osoko kide gisa onartu zuten Euskadiko Euskal Pilota Federazioa, erabakia arauen barruan dago. Espainiak eta Kubak ez zuten botoa emateko aukerarik izan, une horretan ez zutelako betetzen beharrezko baldintzak. Hori izanik aurkeztu zuten errekurtsioa, ni baikor nago.

### **Hamabi urte federazioan, lau lehendakari, agente makila beste eskuetan uztean, nola baloratzen duzu egindakoa?**

Atzera begiratzean pozik eta eskertuta sentitzen naiz, esperientzia oso aberasgarria izan da. Federazioaren garapenean laguntzeko aukera izan dut, eta urte hauetan zehar erronka askori aurre egin diegu, beti pilotaren sustapena, garapena eta etorkizuna indartzeko helburuarekin.

Egindako lana baloratzean, talde-lana nabarmendu nahi nuke, ezin dut nahikoa eskertu federazioaren parte izan diren guztien konpromisoa eta ahalegina, Nekane, Juana, Andoni, Iñaki, Etxebe... eta, nola ez, gure herriko kluba, DANOK BAT, eta Goixerri, berari esker nagoelako pilota mundu honetan. Guztion ahaleginari esker urrats garrantzitsuak eman ditugu.

Agente makila beste esku batzuetan uztea naturala da, erakunde bilakaeran jarraitasuna bermatzeko. Ziur nago federazioak bide onean jarraituko duela, eta ilusioz jarraituko dut laguntzen. Etorkizuna baikor ikusten dut.

**PAUSO**

PODOLOGIA KLINIKA

943 01 49 05 - 747 43 48 52  
Astillero Kalea 2 behe, Deba



**Uzuri**

RPS 183/12

ELGOIBAR - DEBA

optika audio

DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92  
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

# Bertso Eskolaren historia

**1960. urtearen bueltan, diktadura garaian, garaiko bertsolari ezagunenetako batzuk Mutrikura etorri zirela gogoratzen zuten helduenek: Uztapide, Azpillaga, Agirre, Lopategi, Mugartegi eta konpainia. Hauekin batera, herriko bertsolariak ere aipatu zituzten. Helduagoak, Modesto eta Roman Maiz «Okelar» anaiak, «Laxaro», «Erdikua» eta Azpillaga.**

1985 urtean, AEK-k Mutrikuko I. Bertsopaper Sariketa antolatu zuen. «Bertso zaletasuna piztu eta bideratzeko» asmoarekin. Sariketak harrera ona izan zuen herrian eta bertso jarrien inguruan «giro polita sortu zen». Antolatzailea AEK izan zen eta epaile modura, Roman «Okelar», Jon Azpillaga, Jesus Mari Etxezarreta eta Jesus Mari Arrieta egon ziren. Lehendabiziko irabazlea, Markel Arizmendi izan zen.

AEK-k eta Auro Ansorregik egindako lanari esker, lehiaketa milurteko berrira arte osasuntsu mantendu zen. Irabazleen artean, Arizmendiren (1985, 1986, 1988, 1989) Iñigo Andonegiren (1987, 1991) eta Xabier Urangaren bertsoak (1990) aipatu daitezke. 2001. urtean, AEKren testigua Mutrikuko Bertso Eskolak hartu zuen eta «Okelar anaiak»

izena eman zion Bertso Paper lehiaketari.

Bitartean, bertso paperak eta bertsogintza jasotzen ari ziren erantzuna ikusita, 1987 inguruan, bertsolaritzarekin lotutako lehendabiziko klaseak antolatu ziren herrian. Markel Arizmendik, Euskara eta Literatura irakasleak, Jesus Mari Etxezarreta bertso adituaren laguntzaz, bertsogintzaren eta bertsolaritzaren inguruko zenbait ohar eskaintzen zituen bere klaseetan, eta, udaletxeko lokaletan zeuden Formakuntza Profesionaleko ikasgelak aprobetxatuz, herrira zabaltzeko nahi izan zuten bertsolaritzarekiko interesa eta jakintza.

Arizmendik gogoratzen duenez, «Zer da bertsoa?» eta «Bertsoaren egituraketa» kezkei erantzun nahi izan zien. Hala, bertso munduarekin lotutako gainontzekoak azaltzen eta ikasten aritu ziren, urte bat edo bitan zehar. Dozena bat mutrikuar batu ziren klaseetara. Herritar «ezberdinak» bildu omen ziren eskola haietan, denak «bertsoa botatzen ikasteko» gogoz: helburua argi zuten, jakinmina bazeukaten, baina jakituria «gutxi» eta «teoria falta». Mikel Mendizabalek ekarritako materiala aprobetxatzen zuten.







## MUTRIKUKO BERTSO ESKOLA



1990eko ekainean Bertso Eskolaren lehendabiziko estatutuak osatu eta elkarre bezala ofizial egin zuten. Oraindik egoitza propiorik gabe eta estatutuetan egoitza ofizial moduan «Jauja» jarri zuten arren, udaletxe azpiko lokaletan elkartzen ziren. Lehendakari, Jon Azpillaga, diruzain Xabier Uranga eta idazkari Josu Andonegi izendatu zituzten. Elkarre ofizial egiteko arrazoia ere gogoratzen dute: dirulaguntzak eskatzeko eta jasotzeko beharrezkoa zen. Bidean, Patxi Mendizabal «Moenok» eta Jose Antonio Arkauzek laguntza handia eskaini zioten Eskolari, Udalarekin harremanak egin eta Arkauzen kasuan, Bertso Eskolaren paperak egiten asko lagundu baitzuen. Bitxikeria bezala aipatu, hasieran bertso eskolaren eragintza Euskal Herriko zazpi probintzietara hedatu zutela estatutuetan baina erregistroak atzera bota zuela, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa Estatutik kanpoko lurraldeak zirela argudiatuz. Horren ordez, inguruko herriak jarri zituzten (Mendaro, Deba eta Altzola aipatuz).

Ikasturte batzuetan egoitza jakinik gabe batera eta bestera ibili ostean, 1991n Goizeko Izarrak euren egoitza eskaini zien. Urte hartako dokumentuen arabera, guztira 10 lagunek taldea bildu omen zen Jon Azpillaga eta Markel Arizmendi irakasleen esanetara: Laxaro Astigarraga, Juan Mari «Erdikua», Arantza Ugarte «Oikina», Xabi Uranga, Eduardo Azkue, Joseba Mugerza «Irabaneta», Juan Luis Osa «Mizkia», Josu Andonegi «Zapatero» eta Iñigo Ulazia «Masillas», besteak beste. Helduez gain, beste 10 ume inguru ere batu ziren, Jose Luis Basterretxea «Altzalei» irakaslearekin. Hurrengo ikasturtean Mikel Aizpurua debarra batu zitzaion eskolari, Mutrikuko Institutura irakasle lanetara etorri eta «Altzalei»k gaztetxoen irakasle izateari utzi ostean, berak eman zion erreleboa. Eskolan, errimen zerrendak egiten zituzten, baina batez ere «jarduera praktikoa» bultzatzen zen: abesteari inportantzia ematen hasi zitzaion. Hasieran koplata eta puntuka, gero zortziko handia, eta saioa amaitzeko zortziko txikian aritzen ziren. Batzuetan, hamarreko neurrian bertsoaren bat eta beste neurri «bereziagoren» batean besteren bat

bota ohi zuen ausarten batek. Hala, «astero, hiru doinu berrirekin» saiatzen ziren, eta dena grabatuta uzten zuten. Handik gutxira, Xabi Urkizak Ikastolan egindako lanari esker, gazte gehiago hurbildu ziren Bertso Eskolara eta gaztetxoen taldea finkatzea lortu zen.

Bilera eta bertsoaldiez gain, Bertso Eskolako kideek, eskolatik kanpora ere ekimen ugari hartu zuten parte: Santa Eskean aritzen ziren, Korrikan abestu ohi zuten, Kai jatetxean bertso-afariak antolatzen zituzten garaiko bertsolari ospetsuenak ekarrita, AEKren eta Goizeko Izarra Ikastolaren inguruan lan ugari egin zituzten, San Tomas eguneko (liburu) ferian ospatzen zen Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa kasu, eta irailean, gutxienez 1980ko hamarkadatik zetorren ohiturari eutsi zioten: Ederrena zinema aretoan bertso jaialdia antolatzen zuten. Jaialdiak, oraindik bizirik dirau. Aipatu, baita, 1990ean ospatu zen jaialdi hartan hasi zela Arantza Ugarte «Oikina» gai-jartzaile lanetan. «Naturaltasunez» sartu omen zen ofizioan. 1995 inguruan, bertso eskolaren logoa egiteko enkargua luzatu zitzaion Pedro Mari Ulaziarri, baita hark egin ere. Logoak gaur egunera arte jarraitzen du eskolaren irudi izaten.

2009an, Bertso Paper Lehiaketaren 25. urteurrena baliatuz eta Okelar anaiak gogoratuz, Aitzol Astigarragaren gidaritzapean Mutrikuko Bertso Eskolak liburua atera zuen.

1991ko Bertsolari aldizkarian esaten zen bezala, «bertsolari nahiz bertsozale mutrikuar, debatar, altzolatar... guztiontzako tokia dago eta!».

### Mutrikuko Bertso Eskola

#### Iturriak:

Bertso eskolako eta euskal kulturaren sustapenean aritu zirenei egindako [elkarriketak](#), otsailak 27, Mutriku.

[Bertsolari](#), 1991ko uztaileko zkia., 46-47. or.

[Okelar. Ahotik paperera. 25 urte](#). Mutrikuko Bertso Eskola eta Mutrikuko Udala. Mutriku, 2009.

# ....ZORIONAGURRAK....



## UNAX

Mila kilo zorion Unax!!  
Otsailak 27xan 5 urte!!!



## ADEI, EBER, ROSA eta UNAI

Martxuan 13an Rosa, 16an Eber, 19an Unai eta 25ean Adei: Beste bat gehixo!  
Mila zorion denoi! Segi horrela urte askuan!  
Zorionak etxeko denon partez, bereziki Ibai, Enaitz, Aner, Danel eta Naianeren partez.  
Muxuak zuentzat!  
Aupa zuek!



## ADEI

Martxoaren 25ean  
7 urte dagoeneko!  
Txapeldun!  
Zorionak denon partez,  
bereziki Naiane, Aner,  
Danel, Ibai, Enaitz eta  
Eberren partez.



## ASIER

Zorionak Juaris!  
Eskerrak 90ian jaixo  
zinan gu danok  
gobernatzeko.  
Ez do zure parekoik!  
Kuadrilia.



## HODEI

ZORIONAK gure mutil  
politxari martxuak  
20xan urtebetetzia  
doalako. Etxeko danon  
partez zorionak! Batez  
ere arreba Marenek.




## LIBE

Zorionak Libe!  
Dagoeneko 3 urtetxo.  
Segi holako alaixa  
izaten!  
Muxu haundixak  
etxeko danon partez.  
Matxe-matxe.



## ADEI

Zorionak maitxia!  
7 urte haundi dauaneko!  
Segi beti gure bizitza  
alaitzen!  
Askio maitxe zaitxugu!  
Aitak, amak eta batez  
ere Naianek!



## ALAIA

Martxoaren 16an  
hamar petaloz ornitu  
da lorea,  
MUXU HANDI BAT



## LAGUNA

Zoixonak lagun!  
Segi horrelakoa izaten  
urte askuan, eta  
elkarrekin ospatzen  
jarraituko dugu.

## ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

# ansorregi oinetakoak #  
# aldizkaria@kalaputxi.eus #  
# whatsapp 635748393 #



ANSORREGI  
oinetakoak

erdiko kalea 9  
mutriku  
943 60 33 42  
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai  
**masajista eta osteopatia**

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku



# Orgazki Zaharrak



**Itxas Gain soziedadea inaguratu zuten eguna; bertako bazkideak eta auzokoak. 1953 urte inguruan**  
Goitik behera:

Fermin «Lekonde», Santi «Kotxorro», Jose Mari Aramaio, Manuel Arrizabalaga «karnizerua», Fernando Uranga «Pope», Jose Arrieta «karterua», Angel Egiguren «Ondarru», Jose Osinalde «karnizerua», Leonardo Ituarte «Peinao», Fernando Loidi «dentistia», Damian Usandizaga «Txotis», Gregorio Iparragirre «karnizerua», Ambrosio Ulazia «Tururu», Adrian Uranga «Gorrikua», Deme Barrenetxea «Txorero», Dionisio Urreizti «Txanbel», Jesus Ulazia «Trapuxo», Martin Uranga «Gorrikua», Valentin Zumalabe, Delia Mañarikua Kalzada «Polio», Pako Egurbide «bankerua», Agapito Yurrita, Jose Uranga «Pope», Mari Karmen Galparsoro (umea), Eloisa Galparsoro (umea mantalean) eta Loreto Galparsoro (umea kukulmutxu).



# MARTXOA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

| astelehena           | asteartea            | asteazkena           | osteguna             | ostirala             | larunbata              | igandea              |
|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|------------------------|----------------------|
|                      |                      |                      | <b>20</b> Burgoa     | <b>21</b> Zalduegi   | <b>22</b> Zalduegi (1) | <b>23</b> Zalduegi   |
| <b>24</b> Lon Apraiz | <b>25</b> Lon Apraiz | <b>26</b> Lon Apraiz | <b>27</b> Lon Apraiz | <b>28</b> Lasuen Ele | <b>29</b> Lasuen Ele   | <b>30</b> Lasuen Ele |

# APIRILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

|                      |                      |                      |                      |                      |                        |                      |
|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|------------------------|----------------------|
| <b>31</b> Zalduegi   | <b>1</b> Zalduegi    | <b>2</b> Zalduegi    | <b>3</b> Zalduegi    | <b>4</b> Burgoa      | <b>5</b> Burgoa (2)    | <b>6</b> Burgoa      |
| <b>7</b> Lasuen Ele  | <b>8</b> Lasuen Ele  | <b>9</b> Lasuen Ele  | <b>10</b> Lasuen Ele | <b>11</b> Lon Apraiz | <b>12</b> Lon Apraiz   | <b>13</b> Lon Apraiz |
| <b>14</b> Burgoa     | <b>15</b> Burgoa     | <b>16</b> Burgoa     | <b>17</b> Burgoa     | <b>18</b> Zalduegi   | <b>19</b> Zalduegi (1) | <b>20</b> Zalduegi   |
| <b>21</b> Lon Apraiz | <b>22</b> Lon Apraiz | <b>23</b> Lon Apraiz | <b>24</b> Lon Apraiz | <b>25</b> Lasuen Ele | <b>26</b> Lasuen Ele   | <b>27</b> Lasuen Ele |

## EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00  
Larunbat goizetan 09:30-13:00  
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392  
Lon Apraiz.....630 055 097  
Hiart Burgoa (Deba) .....667 338 890  
Amaia Zalduegi (Deba)... 669 262 201

## GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00  
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30  
Isasi 31, 20600 Eibar

## MARTXOA

|           |              |       |                                      |
|-----------|--------------|-------|--------------------------------------|
| <b>21</b> | Zabiel       | 18:00 | Erakusketa: Bollologia               |
| <b>23</b> | Zabiel plaza | 13:00 | Mutrikuko Musika Bandaren kontzertua |
| <b>23</b> |              |       | Emakume Palisten II. Topaketa        |
| <b>27</b> | Zabiel       | 17:30 | Sabeletik mundura: Hauraren loa      |
| <b>28</b> | Zabiel       |       | Berdel Aipamena                      |
| <b>29</b> | Txurruka pl. | 10:00 | Biziklitzeko ariketa                 |
|           | Zabiel plaza | 18:00 | «Marginalia» dantza emanaldia        |

## APIRILA

|           |             |       |                                                     |
|-----------|-------------|-------|-----------------------------------------------------|
| <b>1</b>  | Zabiel      | 18:00 | Kolonbiako Cumbia eta dantza latinoak               |
| <b>4</b>  | Tabernetan  |       | Berdel Pintxo-poteoa                                |
| <b>5</b>  | Herria      |       | <b>BERDEL EGUNA</b>                                 |
| <b>10</b> | Zabiel      | 18:30 | Karmele Jaio: Maitasun kapitala                     |
|           |             |       | Ondoren, Xiriako Andonegi lehiaketako sari banaketa |
| <b>12</b> | Konbentua   |       | Arriola ahizpak biolinjoleak                        |
| <b>29</b> | Liburutegia | 17:15 | Ipuin kontaketa: "Karabi Karaba"                    |
| <b>30</b> | Liburutegia | 18:00 | Zozketa eguna                                       |

## BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·  
· Nautilus, Flysheko fosilak · Arrietakua jauregia ·  
Turismo bulegoan edo [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) helbidean

## ODOLA EMATEA 2025

**apirilak 25**

ekainak 20 · abuztuak 8 · urriak 17 · abenduak 19  
17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan



Gipuzkoako Odol Emaileak

**aldizkaria@kalaputxi.eus**  
**whatsapp 635748393**  
**apirileko aldizkarian**  
**argitaratzeko**  
**apirilaren 12rako**  
**bidali zuen mezuak**

## MENDI-IRTEERAK 2025


- Martxoak 23** Urkiola – Leintz Gatzaga. (Artibai MT) Ur banalerroaren bidea  
**Apirilak 6** Landa – Ozaeta (Artibai MT) Ur banalerroaren bidea.  
**Maiatzak 18** Sunbilla – Mendaur – Sunbilla (Aurrera MT)  
**Ekainak 1** Arnoko XIX. Mendi Ibilaldia (Burumendi MT)  
**Ekainak 15** Brinkola – Biozkornia – Arantzazu. (Burdinkurutz MT)  
**Uztailak 6, 7 eta 8** Pirinioak  
7 > Sallent – Musales – Ibon del Respumoso – La Sarra – Sallent  
8 > Sallent – Pazino – Escarilla.  
**Irailak 7** Bizkarreta – Urepel. Ezkabako ihesaren azken etapa (Burumendi)  
**Urriak 19** Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)  
**Urriak 26** Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako  
Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako  
Ibilaldia (Burumendi MT)  
**Azaroak 16** Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)  
**Abenduak 14** Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



**IBARPLAS**  
**leihoaren erreferentzia**



Igualatorioarekin eta  
Osakidetzarekin  
lan egiten dugu



Audioprotesista  
egunero zentroan  
Audiometriak doan

# OPTIKA VITORIA

O P T I K A • A U D I F O N O A K



ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • [mvitoria@cnoo.es](mailto:mvitoria@cnoo.es)

  
ArmeriaEskola<sup>x</sup>



Zatoz ate irekietara!

**MARTXOAK 26**



**AUKERARIK  
ONENA,  
ETORKIZUNA  
DUENA**

XXVIII  
XXVIII  
XXVIII

# MUTRIKUKO XXVIII. BERDEL EGUNA

## Martxoak 28, barixakua

19:00 MUTRIKUKO BERDEL AIPAMENA ARKU GAIN ELKARTEARI  
Zabiel kultur etxean

## Martxoak 29, zapatua

12:00 BERDEL ERREA Mutrikuko Arraun Taldearen eskutik  
Portuan

## Apirilak 3, eguna

19:00tik aurrera BERDEL PINTXOPOTEA herriko taberna batzuetan.  
19:00 BERDEL ETA TXAKOLI EZKONTZA  
Arku Gain Elkartean. Kofradia - Itsas etxeak lagunduta  
Izen ematea Mutrikuko Turismo Bulegoan. Prezioa: 6€

## Apirilak 4, barixakua

19:00tik aurrera BERDEL PINTXOPOTEA herriko taberna batzuetan  
VI. BERDEL TXAPELKETA FINALA. Miruaitz frontoian. Danok baten eskutik

## Apirilak 5, zapatua XXVIII. BERDEL EGUNA

10:30 - 14:30 IZAN ARRANTZALE PORTUAN (Kofradia zaharreko arkupean)  
Haurrentzako arrantza tailerrak Kofradia - Itsas Etxearen eskutik.

10.30 MUTRIKUKO XVIII. BELAUNTZIEN ARTEKO TXAPELKETA  
Kalatxori bela elkartearen eskutik.

11:00 - 15:00 MERKATU TXIKIA eta ARTISAU ETA SORTZAILE AZOKA  
PORTUAN Eixu artisau elkartearen eskutik.

11:30 GRABNI BANAKAKO TXAPELKETA GIPUZKOA VS ARABA  
MIRUAITZ FRONTOIAN Danok Bat pilotazale elkartearen eskutik.

12:00 HERRIKO ABESBATZEN KONTZERTUA ZABIEL PLAZAN.

13:00 BERDEL PINTXO DASTAKETA HERRIKOIA PORTUAN.

13:00 TRIKITILARIAK HERRIKO KALEETAN ZEHAR.

17:00 GRABNI BINAKAKO TXAPELKETA GIPUZKOA VS ARABA  
MIRUAITZ FRONTOIAN Danok Bat pilotazale elkartearen eskutik.

19:00- Kontzertuak portuan  
LUR AZPIAN eta ZUTIK ERROMERIA